

IGERIKETA IKASTAROAK 2022KO UDAN 2.TXANDA

KIROL ESKAINTZA

1. Eskaintzen diren jardueretan aldaketak eta baliogabetzeak gerta daitezke, dagoen benetako eskariaren arabera. Kaltetuei jakinaraziko zaie. Eskaera nahikoa ez bada, ez da bermatzen taldeak sortuko direnik.

2. Taldeak ezabatzea

2.a. **Aurrez izena emateko epea bukatzean:** eskaera txikia duten taldeak baliogabetzen ahal izanen dira. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, beste talde batzuetan izena eman dezaten.

2.b. **Ordaintzeko epea edo plaza formalizatzeko epea amaitzean:** Formalizatutako plaza-kopurua nahikoa ez diren taldeak baliogabetu ahal izanen dira. Patronatua harremanetan jarriko da kaltetuekin, behin betiko osatzen diren taldeetan parte har dezaten, baldin eta plaza librerik badago.

IRAUPENA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 2022/08/08tik 2022/08/26ra

ADINAK

1. **Haur-igeriketako ikastaroak:** 2011 eta 2018 artean jaiotako haurrendako. Ikusi talde bakoitzaren adinei buruzko informazioa uretako jardueren planillan.
2. **2010ean eta aurreko urteetan jaiotako haurrak:** Eskariak ahalbidetzen badu, 18:55etik 19:40ra bitarteko taldeak sortuko dira.
3. **Helduak:** Eskariak ahalbidetzen badu, 18:55etik 19:40ra bitarteko taldeak sortuko dira.

ASEGURUA ETA OSASUN-AZTERKETAK

1. Gomendagarria da izena emandakoek aurrez osasun azterketa egitea edota medikuari horren berri ematea edo kontsulta egitea.
2. Herritarraren kirol-jarduera orokorraren ondoriozko osasun-arreta sektore publikoko osasun-aseguramendurako erregimenaren ohiko prestazioa da eta/edo beren borondatez duten aseguru pribatuarena. Horrenbestez, Kirol Patronatuak ez du bere gain hartuko prestazio horrek eragiten duen gastua.

IZENA EMATEKO DATAK ETA PROZESUA

1. IZENA EMATEKO ETA PLAZA FORMALIZATZEKO **GESTIO GUZTIAK ETA KOMUNIKAZIOAK RESASPORTS APLIKAZIOAREN** BIDEZ EGINEN DIRA.
2. APLIKAZIOA ERABILTZeko ESKULIBURU ERRAZ BAT DAGO BURLATAKO UDALAREN WEBGUNEAN.
3. ARAZOREN BAT BADUZU, JARRI HARREMANETAN BURLATAKO UDAL KIROL PATRONATUAREKIN (deportes@burlada.es - 948 130 260).

OSO GARRANTZITSUA: KONTU BIKOIZTUAK EZ SORTZEA

1. Ez sortu kontu bikoizturik, sartzeko gakoak galdu edo ahaztu badituzu, eska itzazu deportes@burlada.es helbidean.
2. Jarduera egingo duen pertsonaren erabiltzailearekin egin behar dira kudeaketak, ez aitaren, amaren edo legezko tutoretzaren erabiltzailearekin.

HAUREN IGERIKETA MAILAKETA PROBAK: 07/26 eta 07/27

- 1.- 2., 3., edo 4. mailan parte hartu nahi duten haurrentzat.
2. Helduek eta 2010ean eta aurreko urteetan jaiotakoek proba egin beharko dute, eskariak ahalbidetzen badu, dagozkien ikastaroak antolatu ahal izateko.
3. Ikaste maila konprobatzea ez da nahitezkoa baina bai gomendarria. Nahiz eta maila-taldea desegokia izan, ez dugu ziurtaizen aldatzeko aukera. Maila okerra bada, esleitutako lanpostua baliogabetu ahal izanen da.
4. 17:15etik 18:00etara egingo dira. Itxaron-zenbakia jaso dezakezu udal-igerilekuetan probak egin aurreko egunetik aurrera.

AURRETIKO IZEN-EMATEA: 07/28 eta 07/29

1. Taldeak behar bezala eta behin betiko osatzeko, eskatu nahi dizugu **ez dezazula aurrez izena eman joan ezin zaren edo joan nahi ez duzun taldeetan.**
2. Talde batean baino gehiagotan izena ematen baduzu (**gehienez 3**) **lehentasun ordena adierazi** beharko duzu: **1** gehien interesatzen zaizun taldearentzat **2 eta 3 hurrenez-hurren** gutxien interesatzen zaizkizun taldeentzat.
3. Aurrez izen-ematea **ezinbesteko tramitea** da, baina **ez du bermatzen plaza** lortzea.
4. **Ezinbestekoa da 1. txandako parte-hartzaileek ere 2. txandarako izena ematea**

PLAZAK ESLEITZEA ETA ORDAINKETAK: 08/03 eta 08/04

1. **Plazak zozketaren bidez emanen dira**, eskabideen kopurua lekuen kopurua baino handiagoa den taldeetan.
2. **Abonatuak** diren pertsonak **lehentasuna** izanen dute. **Erroldatuak** diren pertsonak **lehentasuna** izanen dute **ez erroldatuak eta ez abonatuak** direnen aurrean.
3. Udako igeriketa ikastaroetako lehen txandan parte hartu duten ikasleek izango dute lehentasuna.